ASTEKARIA - 2009ko uztailaren 3an - XIII. urtea - Usurbil, 373. zenbakia

www.noaua.com

# Noaua !!



Oilasko biltzaileen txanda




## Xabier Dorronsoro etorkizun handiko aizkolaria


MERKEALDIAK
-%30
MAHUKA
arropa denda
etxebeste 3 ✆ 943 361 106


Zumeta
Jatetxea
Ondo pasa Santixabelak!!
Astelehenetik igandera
· Menu Berezia 20€ Aukera ederra
· Degustazioko menua
· Karta
Astelehenetik ostiralera
· Eguneko menua
Igandetik ostegunera
· Gauez itxita
(Erreserba eginda zabaltzeko aukera)
Txokoalde auzoa, 34 · USURBIL · ✆ 943 362 713

Albistea iruditan !!

# Tratu txarrak salatu ditu Olatz Lasagabasterrek

Poliziaren eskuetan inkomunikatuta egon ziren bost egunetan "kolpeak, mehatxuak eta presioak" jasan zituztela salatu zuten aurreko astean Usurbilen eta Astigarragan atxilotutako hiru gazteek.

Hirurak baldintzarik gabe espetxeratzeko agindu zuen epaileak eta Madrilgo Soto del Real kartzelara eraman dituzte. Patxi Uranga eta Olatz Lasagabasterri ETAko kide izatea eta lehergailuak gordetzea leporatu die epaileak; Ainara Vazquezi, berriz, ETAri laguntzea.

Atxiloketak salatzeko manifestazioak egin dira egunotan.




Noaua!!

NOAUA! Kultur Elkartea Bordaberri 3 Eguzkitzaldea - 20.170 Usurbil
943 36 03 21 - elkartea@noaua.com - www.noaua.com
Jendaurreko ordutegia: 10.00-14.00 / 16.00-19.00 astegunetan

Elkarteko lehendakaria: Ana Aizpurua, elkartea@noaua.com
Aldizkariko koordinatzailea: Imanol Ubeda, erredakzioa@noaua.com
Idazkaria: Alaitz Aizpurua, elkartea@noaua.com
Publizitatea: Bea Alda, publizitatea@noaua.com
Kolaboratzaileak: Lontxo Zubiria, Ane Manzisidor, Maria Angeles Arruti, Ainhoa Salsamendi, Maria Jesus Urbieta, Nerea Korta, Aritz Gorriti, Jone Eizmendi, Ainara Arnaiz, Begoña Rekondo, Iñaki Agirresarobe, Ana Urdangarin, Eneko Harreguy, Iñaki Labaka, Koldo Huegun, Aloña Loidi, Imanol Goenaga, Agustin Esnaola, Alex Tello, Pako Agudo, Sara Lazkano, Nerea Aizpurua, Alazne Begiristain, Xabier Arregi, Edorta Agirre, Pello Aranburu, Ainara Uribe, Joseba Pellejero, Maider Makazaga, Aloña Pulido, Ainhoa Azpiroz, Aitor Landaluze, Josu Aranberri, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi, Idoia Torregarai.
Denborapasak: LUMA, O.E.
Erredakzio kontseilua: Imanol Ubeda, Aritz Gorriti, Alaitz Aizpurua.
Informatika: Topaguneko informatika zerbitzua.
Banaketa: Miren Azkonobieta, Olatz Rezola, Amaia Zumeta.
Tirada: 2.600 ale
Lege-Gordailua: SS-668-96 - ISSN: 1136-6818

Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.

## Aurkibidea

USURBIL CUP, IRUDITAN ____ 5. OR.
HERRIKO JAIAK, KLIK BATEAN ____ 8. OR.
XABIER DORRONSORO AIZKOLARIA ____ 10. OR.
USURBIL FT, BERRIZ ERE MARTXAN ____ 15. OR.

Usurbilgo Udala
AIRE, AIRE !!! EUSKARAZ
Euskal presoak
Euskal Herrira!

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

ARRAINDEGIA
PELLO
Puntapax Kalea,7
Tlf 36 21 64
USURBIL

Papera jartzea eta Pinturak orokorrean
FERNANDO PINTURAK
943 366 019
943 363 460
Kale Nagusia 1 · USURBIL

teilatuak eta fatxadak
JOSE AIZPURUA UNANUE
Obaba kalea 29 · ASTEASU
943 69 68 52 · 620 800 186



UNAI AGIRRE

# Egia ukaezina denean

Beste behin ere, pil-pilean dugu zaborren gaia, erraustegiaren mehatxua. Usurbilen atez atekoaren inguruan herri galdeketa prestatzeko gure taldeak ere parte hartu zezan deitu zidaten, eta gustura joan ere. Izan ere interesa izan dugun taldeetatik lantzea demokrazia partehartzailearen aplikazioa besterik ez da eta. Penaz hartu nuen, baina, atez atekoaren kontrako plataformatik inor ez joatea, ziur nagoelako eztabaida interesgarri bezain produktiboa aterako zela. Hala ere, aurrera doa galdeketa. Zubietan, berriz, makinak hortzak zorrozten dabiltza erraustegirako katak egiteko gogoekin. Horretarako aldi baterako espropiazioak egiten ari dira, zorionez nahi baino mantsoago. Bien bitartean, eta Usurbilgo esperientzia eta emaitzak eskuan, Gipuzkoako errausketaren kontrako koordinadorak hau irakurtzen duzunerako Gasteizeko Legebiltzarrean 30.000 sinadura baino gehiago entregatuak izango ditugu, hondakinen legea proposatuz, errausketarik gabeko kudeaketa eta Usurbilgoa bezalako bilketa eredugarria zabaltzeko asmoz. Orain Gipuzkoako errausketaren aurkako koordinadorak baditu 30.000 lagun aktiboki babesa eman diotenak. Hainbaten gezurrak erortzen ari dira, ez genituela alternatibak proposatzen, birziklatu ezina zena bakarrik erraustu nahi zutela… Horregatik gustatuko litzaidake gai hau ez erabiltzea argudio gisa oposaketa politikoa egiteko, zintzotasunez jokatzea zaborren gaiarekin, eta ondorioz erraustegiarekin. Eta honen inguruan, pasatako maiatzeko 2185 zenbakidun Argia astekariko elkarrizketa aipatu nahiko nuke. EA-ko Sabin Intxaurragari erraustegiari buruz duen iritziari buruz galdetuta, hona erantzuna: "Horregatik iruditzen zait egokia Usurbilen martxan jarri duten etxez etxeko zabor bilketa. Badirudi jendearen kontzientziazioa eta parte-hartzea bultzatuz gero, askoz hobeto sailkatzen direla zabor hondakinak, gerora berrerabilpena errazteko gisan". Honekin ikusi dut, zintzotasun politikoa dagoenean, ukaezina dela argi dagoena.

Luis Aranalde - Aitor Landaluze - Imanol Ubeda - Aritz Gorriti - Nerea Zinkunegi - Maialen Unanue - Joxe Piñas - **Unai Agirre** - Idoia Torregarai

Ika-mika

# Txakur jabeei zuzendua

Txakur jabe askok haiekin dabiltzanean bete behar dituzten arauak errespetatzen ez dituztelako kexak jaso ditugu Udaltzaingoan.

Honegatik, komenigarria iruditu zaigu Euskal Autonomia Erkidegoan txakurrak edukitzeari buruzko 101/2004 dekretuak agintzen duena gogoraztea.

Dekretuaren 4. artikuluan txakur jabearen edo edukitzailearen betebeharrak azaltzen dira, eta honela dio:

2.– Hiri barruko bide eta gune publikoetan, bai eta eraikin kolektiboen gune komunetan ere, txakurrak kontrolatuta eramango dira beraien ezaugarrietara egokitutako kate edo uhal bati lotuta —gehienez, 2 metrokoa—.

Betebehar hori ez betetzea arau-hauste larria izango da animaliak babesteari buruzko Legearen 27.2 h) artikuluaren arabera.

3.– Debekatuta dago txakurren gorozkia bide eta plaza publikoetan, haur-parkeetan, lorategietan, eta oro har, apaindurarako eta/edo pertsonen pasadizorako den edozein lekutan uztea. Debeku horri jaramonik ez egitea, arau-hauste larria izango da Hondakinei buruzko apirilaren 21eko 10/1998 Legearen 34.4.c) artikuluaren arabera.

4.– Kode Zibilaren 1905. artikuluan ezarritakoaren arabera, txakurraren edukitzailea edo hartaz baliatzen ari dena izango da txakurrak sortzen dituen kalte, galera eta arazoen erantzulea; baita txakurrak alde egin badio edo galdu egin bazaio ere.

5.– Txakurren jabeak edo edukitzaileak behartuta daude eskumena duen organoak eskatzen dien informazioa eta datuak ematera.

**Udaltzainburua**






# Jostun taldeak egindako lanak erakusgai Santuenea Elkartean

Tradizioa modernitatearekin nahasten duen euskal jantzien erakusketa ikusgai izan da Santuenea Elkartean. Duela hiru bat urtetik aipatu elkartean jostun lanetarako biltzen dira, Mari Karmen Oroz irakaslearen gidaritzapean, Maria Jose Ibirriaga, Estrella Muñiz, Carmen Toquero, Arantxa Moto, Irune Molina eta Lourdes Saez. Egindako lanen emaitza, Santuenea Elkartean egon da ikusgai.



ERAKUSKETAKO JANTZIAK PRESTATZEN ARITU DIREN JOSTUNAK.

### IV. Argazki lehiaketa

Bestetik, Santuenea Elkarteak antolatu duen argazki lehiaketan irabazleak honakoak izan dira: Zuhaitz Andres, Asier Angulo eta Jonatan Garcia.

## Pikaola, goiz eta arratsaldez zabalik

Uztailaren 1az geroztik, tamaina handiko gaiak uzteko Pikaolan (Kalezar) zabaldu den eremuan, ordutegi berria indarrean jarri du Udalak. Aurrerantzean, astelehenetik larunbatera goiz eta arratsaldez zabalik egongo da aipatu eremua; 9:00-13:30 artean eta bazkalostean, 16:00etik 20:30era.

Pikaolako gunea tamaina handiko gaiak uzteko balia daiteke: etxetresna elektrikoak, altzariak, lanetako hondakinak, inausketak…

Era berean, etxean konpostajea egiten ari diren herritarrari organikoari nahasteko gai lehorrik falta bazaio, Pikaolatik har dezake.

# Usurbil Cup Txapelketan, denak garaile









KIROLA EGIN, AISIALDIAZ GOZATU, LAGUNEKIN JOLASEAN IBILI... HORRETARAKO ERE EGOKIA DA USURBIL CUP TXAPELKETA. AURREKO IGANDEAN SARITUAK IZAN ZIREN TALDEETAKO BATZUK DITUZUE ARGAZKIETAN.

KALEZAR

ALOÑA PULIDO

# Gora Juan eta Ixabel!



Aurtengo San Juanak ere pasa dira, konturatzerako urte bat gehiago pasa da eta San Juanak ere igaro dira. Izugarrizko giroa izan da aurten ere Kalezarren, egia esan herriko jende guztia hurbildu da aurtengoan ere Kalezarrera. Gainera aurten nobedade bat izan dugu, San Juan Suaren tokiaren aldaketa, baina lekua aldatu arren berdin gozatu ahal izan genuen urteko gaurik luzeenaz. San Juanen komentario honekin bukatzeko beste behin ere eskerrak eman behar dizkiet festak antolatzen ibili direnei, asko ez izan arren lan ederra egin baitute!

San Juanak pasa ostean hemen dira Santixabelak! Herriko festa nagusiak, herritar guztientzat festa giroan murgiltzeko aukera bikaina. Oraingoan Usurbilgo Eskubaloi Taldeari eta Usurbil Judo Klubari tokatu zaie txupinazoa botatzea. Izan ere, herriko bi talde hauek egindako denboraldiaren ostean ez baitute gutxiago merezi.

Bestetik Zubietako Santioak ere konturatzerako gainean izango ditugu, Usurbilgoak bukatu bezain laster iritsiko baitira, ondoren San Estebanak….



Bueno, herriko festen errepasoa egin dizuet, eta beraz, guztioi festa hauetan ondo ondo pasatzea opa dizuet, aukera falta ez duzue eta. Besterik gabe, Gora San Juan eta Gora Santixabel!

URDAIAGA

NEREA AIZPURUA

# Zakarrontzien falta



Udan bete-betean sartuak gara dagoeneko eta horren isla azken egunetako beroak izan ditugu. Eguraldi onarekin batera etorri zaizkie gaztetxoenei oporrak eta aurretik dituzten egun guztiak jolasean pasatzeko aukera ezin hobea dute. Helduok ere ez dugu aitzakiarik... Neguan ez bezala, udan ez dago aspertzeko betarik. Konturatzerako San Estebango jaiak gainean izango ditugu. Aurten ere, bertara hurbiltzen direnentzat ez da parranda eta ondo pasatzeko aitzakiarik faltako.

Festa garaian ez ezik, eguraldi ona lagun, auzoko parke inguruetan jende ugari bildu ohi da: familiak, lagun koadrilak... Hala ere, hainbatetan parkeko mahaiak eta bazterrak zaborrez nahiz botilez beteak gelditu ohi dira. Ingurunea zaintzearena guztion lana dela deritzot eta parkea guztiona den aldetik, berau zaintzea ere guztion lana da. Dena den, atez-ateko bilketa zela eta bertan zeuden kontenedoreak kendu egin ziren eta herrian bezala, zakarrontziak jartzea komenigarria dela deritzot; dena den… Norberarena da erantzunkizuna, baina erreztasunak ematea ez legoke gaizki, ezta?

ATXEGALDE

AINARA BORDAGARAI

# Bestelako kea



Kaixo auzotarrok! Asteartean ekainaren 23an, San Juan bezperako sua izan genuen Kalezar auzoan. Ospakizun eder honekin batera ordea, bestelako su mota bat ere ageri zen inguruan. Atxegaldeko auzotarrek afal orduan beste usain berezi bat nabarmendu genuen.

Balkoira atera, eta aurrez aurre ke beltza zerion lantegi bat genuen. Ez da halakorik gertatzen den lehen aldia, lehendik ere bizi izan baititugu antzeko egoerak.

Guztiok dakizuenez, Atxegalden, kutsadura neurtzeko prestaturik zegoen kamioia egon zen bere garaian, baina badirudi, berriro ere bueltatu egin beharko duela neurri sendoagoak hartzeko. Azken aldia izango ote da, edo berriz ere ke eta usain txarrak udako geure lagun min bihurtuko ote dira?

Denborarekin argituko dira zalantzak. Bestelakoan, uda aipatuta ezin ahaztu kontu pozgarriagoak ere. Jada, auzotik autobus geltokira doazenak hondartzara joateko, oporrak, hasi berriak diren Santixabelak, edota auzoko festak. Ondo pasa!

*Aurrerantzean, Kalejiran ataleko 8 kronikak txandaka argitaratuko ditugu. Txokoalde eta Urdaiagako kronikak hurrengo batean bilduko ditugu.*

ZUBIETA

GARAZI ITURRALDE

# Oria ibaian barrena



Lehengo larunbatean koadrila bat bildu ginen Oria ibaiko zaborra biltzeko asmotan. Arratsaldeko laurak inguruan bildu ginen Aliriko zubian lan pixka bat egiteko asmotan. Jaitsi genituen piraguak ibaira eta bakoitzak bere eskularruak, poltsak, zaborra botatzeko, eta makilak hartuz uretara sartu ginen. Berehala hasi ginen zaborra biltzen izan ere asko zegoen ezker nahiz eskuin aldean. Ibaian behera abiatu ginen eta ibilbide erdia egin baino lehen zakuak beteak genituen, batetik plastikoa bestetik arropa zaharrak eta baita txatarra ere. Hau dena ateratzeko hor ibili ginen tiraka trapu zaharrak ateratzeko, baina baita lortu ere. Iritsi ginen horrela Irubieta pareko irlatxora eta bertan zabor poltsak utzi genituen bueltatxo bat eman eta ondoren berriro jasotzeko asmoz.

Jarraitu genuen behera, baina orain arin gindoazen poltsak han utzita, eta zer ikusiko eta gartza kumeak. Han atera ziren zuhaitz luzeen tartetik hegaka alde batetik bestera. Presara iritsi ginenean ordea buelta erdia eman genuen. Batzuk jadanik nekatuta zeuden eta nahiko lanak zituzten bueltatzeko, baina iritsi ziren. Irlara iritsi ginen



eta bertan genituen poltsak piraguan kargatu, baloi eta kanpinerako aulki batekin, eta han joan ginen gorantz. Ez pentsa azkar egin genuenik, zazpietan itzuli ginen berriro Alirira eta zaborra jaso genuen, baina oraindik dezente geratu zen ezin baikenuen hori dena jaso.

Ez pentsa erraza izan zenik hori jasotzea, ibaia oso zikina zegoen eta hori dena jasotzea nazka ematen zuen, baina guk botatzen dugu.

AGINAGA

AITOR HELETA

# San Joan bezpera



San Joan eguna urteko egunik luzeena da. Euskal mitologiaren arabera gau berezia da. Suarekin ospatzen da, garbitasunaren ezaugarri baita eta majikotasun kutsua izanik mendez mende eta belaunaldiz belaunaldi zabaldu da.

Iaz ez bezala aurtengo San Joan bezperan gau giroa ederra izan genuen Sekañako goiko zelaian, egun horretan Aginako Eskola Txikiko umeek oporrak hartu zituzten eta batzuk apunte zaharrak erretzen ospatu zuten.



Bestalde komentatzea haizeak frontoiko sabaian sortutako kalteak konpontzeko lanak martxa onean doazela eta laster bukatuta egongo direla.

Eta azkenik aipatzea ludotekan larunbat honetan begiraleak oporrak hartzen dituela eta irailean berriz egongo dela betiko ordutegian, goizeko 10:00etatik 13:30era.

Ondo pasa oporrak.

KALEBERRI

ENEKO HARREGUY

# Badena beti izango da



Zurekin amets egiten dut askotan. Zin dagizut. Batzuetan, oso amets atseginak izaten dira; elkarrizketa gozoak. Nik halaxe egiten nizun moduan, nire gauzak kontatzen nizkizun –eta oraindik ere bai batzuk- eta zuk, beti bezala, adi-adi entzuten zenidan. Ez nuen aholku bat aurkitu nahi, ez nuen beste ezeren beharrik izaten; bi belarri baino. Eta zuk, izan zenituen. Besteren batean edo, ustekabekoren bat eman izan didazu. Baina ez da ohikoena gertatzen.

Ez dut data seinalaturik behar zutaz gogoratzeko: ez sanjuanak, ez gabonak, ez festak... Egunero gogoratzen naiz zurekin, eta ez diot esan beharraren esanaz esaten ditugun topikoengatik, ezpada egia benetakoa delako. Egia delako. Egia zinelako.

Badena, beti izango da zerbait. Eta zu beti izango zara gure bihotzeko. Gure bihotzak, zergatik ez, negarra dario zenbaitzuetan. Eta gure zoriona, lurrak irentsi eta elikagai izan duen malko bakoitzari esker sortzen den lorea izaten da. Eskerrik asko hor egoteagatik. Gurekin zaude.

# Herriko jaiak, klik batean islatzen

**Nola gogoratuko ote ditugu aurtengo Santixabelak? Jaiak pasatakoan jakingo dugu ziurrenik. Halere, oroitzapenak berritzerakoan lagungarriak izango zaizkigu egunotan aterako diren argazkiak. Zeregin horretan arituko da Ibai Arrieta argazkilari zaletua ere.**

**NOAUA! Argazkigintzarako zaletasuna, orain gutxiko deskubrimendua edo aspaldiko zaletasuna duzu?**

**Ibai Arrieta.** Zaletasuna betidanik izan dut. Ikastolan argazkigintzako tailerrean kamera erabiltzen irakatsi ziguten. Kamera analogikoak garestiak zirenez, gurasoek oparitutako automatikoarekin ibiltzen nintzen garai hartan. Ondo jakinda atera behar izaten nituen argazkiak. Gero, argazki zaleen laborategi batean aritzeko aukera izan nuen. Kamera reflex zahar bat erosi nuen, eta harekin errebelatu analogikoa egiten ikasi nuen.

**IBAI ARRIETA**

"Errazago mugitzen naiz, inork ezagutzen ez nauen leku batean, ni behintzat askeago sentitzen naiz"

**N. Prozesu guztia, zeuk aipatu laborategian burutzen zenuen?**

**I. A.** Arrasaten ikasten ari nintzela. Jada ikasketak amaitu nituenean, ez nuen halako aukerarik. Eta hemen geratu nintzen, ez aurrera ez atzera. Lanean hasi eta kamera digital automatikoa erosi nuen lehenbizi, gerora, reflex bat. Kamera hobetzen joan den neurrian, hobetzen joan da argazkigintzarekiko dudan interesa eta zaletasuna.

**N. Zer nolako argazki motaren bila joaten zara?**

**I. A.** Argazki interesak desberdinak dira. Interesatzen zaidan herri mailako ekitaldi publiko bat baldin badago, haren segimendua egin nahi izaten dut. Oso aspaldi, Usurbilen antolatu ziren kontzertura kamerarekin joanda hasi nintzen argazkiak ateratzen. La Pollaren emanaldia, argazkiak egiteko lehen ekitaldia izan zen. Bereziki, kontzertuak pizten zidaten interesa. Baina argazkigintza mundua ezagutu ahala, ekitaldiez gain, paisaiak, erretratuak ere badirela deskubritzen duzu. Baita niri proposatu edo sentitzen duzunaren ingurukoak ere.

**N. Usurbilgo azken urtea, zure argazkietan nola dago irudikatua?**

**I. A.** Ekitaldi bakoitzak du bere garrantzia eta ekitaldi horretara zortzi begirekin zoaz. Sagardo Eguna edo kontzerturen bat, irribarre edo keinu politen bat ikusten duzunean horrek harrapatzen zaitu, nahiz argazki horrek eragin sozialik ez izan. Aurrera egin ahala, hobeto hasten zara planifikatzen.

**N. Ekitaldiak nonahi izan ohi dira. Herritik kanpora ere ibilia zara?**

**I. A.** Herrian baino gehiago. Errazago mugitzen naiz, inork ezagutzen ez zaituen leku batean ni behintzat askeago sentitzen naiz.



SAGARDO EGUNEAN, IBAI ARRIETAK ATERATAKO ARGAZKIA.

**N. Zer irizpideren arabera erabakitzen duzu kanpora joatea?**

**I. A.** Hau guztia, formazio prozesua da niretzat eta bertan ekintza hauek ariketa praktiko gisa planteatzen ditut, argazkilari gisa aurrera egiteko. Hatortxu Rock jaialdiko bi edizioetan egon naiz, argazkilari gisa, Oreretako hainbat kontzertutan, Hondarribiako Olearso jaialdian… Mendeku Itxua taldearen diskorako promozio argazkiak ere egin nituen, lehen aldiz. Eta gero, irteeratan libreki egiten ditudanak daude. Ekintzarik ez dagoenean, mendira, kostaldeko labarretara joaten naiz, argazkiak ateratzeko gai desberdinak bilatzera.

Enrique Alonso
ITURGINTZA-GASA-BEROKUNTZA
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA
-Oro har libratze-lanak
-TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
659 675 283

Ford
Usurbil Autoak, S.C.L.
Zerbitzu Ofiziala
Zumartegi Poligonoa,
Aitzezarra kalea, 1.
20170 USURBIL
Faxa: 943 36 62 92
943 36 10 79

# Ibai Arrieta

## "Argazkiak ateratzea parrandarekin uztartu beharko da"

**NOAUA! Kalkulatzerik bai zenbat argazki atera dituzun?**

**Ibai Arrieta.** Zehazki ezin esan, baina kopurua handia da. Halere, gero guztiak ez dira balekoak. Baina onak direnen aukeraketa eginda, kopurua murrizten da.

**N. Santixabeletan ere argazkilari lanetan ikusiko zaitugu. Nola moldatuko zara argazkilari lana eta jai giroa uztartzeko?**

**I. A.** Egitaraua begiratzen eta mugikorreko agendan ekitaldiak azpimarratzen aritu naiz. Jaiak dira eta usurbildarra izanik, halako ekintzetan zaila da argazkiak atera eta jai giroan parte hartzea bereiztea. Baina argi baduzu zeren bila zoazen, gustura aritzen zara. Festari begira, ekintzaz betetako bost egun dira. Aukeraketa egin behar da, zer ekitalditan parte hartu eta nola. Argazkiak ateratzea parrandarekin uztartu beharko da.

**N. Bururatu zaizu duzun argazki bildumarekin zerbait egitea?**

**I. A.** Orain arte egindako bide zati hau, formazio bezala ikusten dut. Helburua ikasi eta hobetzen joatea da.

Besteak beste, gai konkretu bat aukeratu, horren inguruan argazki kopuru jakin bateko erreportaje bat egin eta gai horrek niri transmititzen didana islatzen saiatzeko asmoa dut.

### Etengabe, bilatzen

**N. Nahi izanik, oraindik lortu ez duzun argazki hori…**

**I. A.** Asko. Hainbeste dira, eta hainbeste egoera desberdin. Hori da hain zuzen argazkilariaren motibazioa, oraindik atera ez duen argazki horren bila jarraitzea.



ARRIETAREN ARGAZKIAK IKUSGAI DAUDE WWW.FLICKR.COM/PHOTOS/SHIVAREN_LURRALDEA WEBGUNEAN.

## Jaietan, argazki lehiaketa

Udalak antolatu duen lehiaketa honetara nahi adina argazki aurkez daitezke. Saria, ordea, bakarra izango da: 100 euro irabazlearentzat.

Argazki guztiak uztailaren 10ean eskainiko dira Sutegin, iluntzeko 20:00etan hasiko den emanaldian.

Lehiaketa honetarako argazkiak aurkezteko bi modu daude:

1. NOAUA!ko bulegora ekarri (kamara digitalarekin bazatozte, ez ahaztu USB kablea etxean).
2. E-postaz bidali, argazkiak banan bana, honako helbide honetara: elkartea@noaua.com

### Uztailaren 7a baino lehen

Argazkiak e-postaz bidali behar badituzue, JPG formatoan bidali.

Argazkiak ekarri edo bidaltzeko azken eguna: uztailak 7 asteartea.

# Igande honetako aizkolari lehian, herritarrak aurrez aurre arituko dira

**Santixabeletako azken egunean, lehia bizia bezain herrikoia jokatuko da. Lau kirolari bikote, ezagunak, beterano eta gazteak, tartean usurbildarrak aizkora hartu eta egurra mozten, nor baino nor. Parte hartzaileen artean, besteak beste, igaro den abenduan San Tomas azokan burutu zen saioan txapeldun geratu zen Xabier Dorronsoro. Azken prestaketa lanean dihardu.**



ZERAINEN BIZI DA XABIER DORRONSORO, LEHIAN ARITUKO DEN AIZKOLARIETAKO BAT.

**NOAUA! Entrenamendu saioak zer moduz doaz?**

**Xabier Dorronsoro.** Egin beharreko gehiena egina dago. Azken egunetako entrenamendu saioak ez dute askorako balio. Aurretik egindakoarekin joan beharko dugu, ia zer ateratzen den. Bi kirolariren arteko lana desberdina izaten da.

> **IGANDEKO PROBA**
>
> "Lau bikote arituko dira lehian; zortzi kana erdiko lanari ekin beharko diote"

**N. Aizkolari gisa banaka edo binaka, zer modalitatean aritu ohi zara erosoago?**

**X. D.** Lagun onarekin edonor gustura aritzen da. Aldea dago halere, bakarkako lanean erresistentzia fisiko handiagoa behar da. Prestatua egon behar duzu, egur bat hasi eta bukatzeke. Eta segi berriz ere. Txanda librean berriz, prestakuntza txikiagoarekin, lagunari txanda ematen diozunez, arnas pixka bat hartzeko denbora ere ematen du. Errekuperatu eta errazago ibiltzen zara. Halere, erritmoa biziagoa da. Bakarkako lanean erritmoa hartu eta hari segi egin behar zaio nolabait. Txanda librean, bi aizkolariek elkar ondo hartu behar dute.

**N. Igandeko probak zer berezitasun izango ditu?**

**X. D.** Uztailaren 5eko proba, abenduan herrian jaiotakoen arteko txapelketaren haritik dator. Ondo ateratzen bazen, jaietan zerbait egingo genuela esan zen. Giro ona zegoela ikusita, animatu gara. Hasiera batean sei bat lagun ginen, baina gero beste bikote bat animatu da. Azkenean, guztira lau bikote izango gara. Aurreko batean, bileran bildu ginen. Paper gainean erraz jarri genuen egin beharreko lana; oker ez banabil, zortzi kana erdiko lana. Baina gero, agian komeriak izango ditugu lana bukatzeko.

**N. Parte hartzaileak zeintzuk izango zarete?**

**X. D.** Arrillaga aita semeak, Alkorta eta Iruintxo, Urtzi Olasagasti eta ni, eta Joakin Izuela eta Egioleta.

**N. Lehia ikusgarria izango da beraz, ezagunak tartean egonda?**

**X. D.** Nahiz eta punta-puntako aizkolariak ez izan, ezaguna izate horrek beti ematen du morboa. Erakustaldia ikustera joango den jendeak aizkolaritzarako zaletasun handiegirik izan ez arren, partaideak ezagunak diren kontu horrekin izaten du saltsa, aldez aurretik egoten diren komentarioekin batera; zein izango diren, hauek hobeto arituko dira… Saltsa hori izaten da, eta hori da azkenean, politena.

**N. Usurbilen jaioa, baina urte dezentetik hona Zerainen bizi zara. Aizkolaritzarako zein plaza duzu nahiago?**

**X. D.** Hona gustura nator. Badira hamar bat urte Zerainen bizi naizela. Baina beti izango naiz sortzez, usurbildarra. Esan nien beraiei, kanpoan geratu behar izan banu arazorik ez nuela izango, antolatzen laguntzeko prest nengoela. Aukera dagoen artean, gustura asko etorriko naiz. Gainera jendeak ere animatzen nau eta gurasoak hemen bizi direnez, oso gustura etortzen naiz ni hona.

# Xabier Dorronsoro: “Iaz baino hobeto nabil”

**NOAUA. Zer moduz ikusten duzu herri kirolek sustatzen duten parte hartzea?**

**Xabier Dorronsoro.** Orain moda modan daude mendiko maratoiak adibidez, eta halako probek indar handia hartu dute. Garai batean herri kirolek zuten indarra, egun ez dute. Segan, aizkoran, jende asko ibiltzen zen, eta ezagutu ere bai. Hemen antolatzen diren bezalako jaialdiekin eman behar zaio indarra. Nahiz eta profesionalak ez izan, saltsa pixka bat sortu, herriko ezagun jendea sartu eta diru gutxirekin festa polit bat egitea ez da zaila, gogo pixka bat jarrita. Bultzada pixka bat ematea guri behintzat ondo datorkigu, ze etxean entrenatzen aritu eta gero inongo plazan ez bazara aritzen, askotan ez dizu ezertarako balio. Erakustaldiren batean parte hartzeak segitzeko ilusioa ematen dizu.



ERAKUSTALDIEI ESKER AIZKORAN JARRAITZEKO ILUSIOA MANTENTZEN DU XABIER DORRONSOROK.

**GIPUZKOAKO FINALEAN**

“Bigarren mailan parte hartzen ari naiz. Finala uztailaren 26an izango dugu Mendaron”

**N. Festak nonahi hemendik aurrera. Erakustaldi gehiago izango al duzue?**

**X.D.** Deitzen digute guri herriren batera edo bestera joateko. Gustura asko joaten gara gainera. Eskerrak erakustaldiei, egurra erosi behar izaten dugu eta, kostua du, aizkorak ere puskatu egiten dira. Eta dena poltsikotik jarri beharrean, behintzat erakustaldiren bat edo beste egiten baduzu, entrenamendu bateko dirua aurreratzen duzu.

**N. Aizkolaritzan, Gipuzkoako Txapelketan parte hartzen ari zara. Bukaera gertu da jada?**

**X. D.** Iaz parte hartu nuen lehen aldiz, Euskadiko hirugarren mailan eta kanporaketan laugarren geratu nintzen. Kanpoan beraz, hiru sailkatzen baitziren. Aurten Gipuzkoako bigarren mailan parte hartzen ari naiz, lehen aldiz baita ere. Maiatzaren 31n Beasainen kanporaketa saioa jokatu genuen, eta handik hiru lagun pasatzen ziren, hirugarren sailkatu nintzen ni, eta final saioa dugu uztailaren 26an Mendaron. Harantz joan beharko dugu.

**N. Iaz baino sasoikoago zaude aurten?**

**X.D.** Bai, hemen, denean bezala izan ohi da. Etxeko lanak eginez gero poliki-poliki hobetzen zoaz. Iaz baino hobeto nabil bai. Aurrera jo beharko dugu, ia zer gertatzen den.

**N. Zerk ahalbidetu dizu finalera ailegatzea?**

**X. D.** Entrenatu eta entrenatu, besterik ez dago. Hamabost egun lehenago entrenatzen ibilita ez da ezer egiten. Aurretik ibili behar da. Zenbat eta indar zein teknika gehiago izan, hobe. Eta gero menditik itzuli batzuk egin behar. Asko kostatzen da maila hartzea. Baina oraindik baduzu zeregina, finalean sartu baikara. Eta horrekin gustura gaude behintzat.

**N. Lan handia eskatzen dute halako erakustaldiek?**

**X. D.** Lau egur ebakitzeko, ordu laurdeneko lan bat egiteko, aldez aurretik egurra prestatzen egin beharreko lana dago eta gero zuritu, josi, moztu, askatu, egur guztiak pilatu, iltzeak atera… Ordu laurden bateko lana egiteko, aldez aurretik beste bi orduko lana duzu gutxienez. Lana fisikoa da, gogorra da. Gustukoa izan behar.

**N. Santixabeletako erakustaldiari dagokionez, apusturik egiterik bai?**

**X. D.** Entzun dut, apustuak eta abar dabiltzala. Gazteak gehiegi goratzen ari dira. Baina ni helduekin ez naiz batere fio, txanda librean denez, kolpe handiko jendea dago hor eta haiek ere, batak besteari lagunduz errekuperatzen errazago ibiliko dira. Eskarmentu eta indar handikoak dira. Errespetu handia zor behar zaie. Ezusteko bat baino gehiago emango dute. Festa polit bat izaten saiatuko gara. Antolatzaileei eskerrak eman, eta Udalari baita, emandako laguntzagatik.

# Dantzan hasi eta dantzan amaitu ziren San Joanak

**Lekuz aldatu arren, San Joan bezperako suak jende asko erakarri zuen. Herritarrez bete zen Haur Eskola ingurua, eskean irten zirenak noiz ailegatu zain ziren, ekitaldia hasteko. Sua piztu eta indar hartzen joan ahala, igo ziren oholtza gainera bertsolariak eta trikitilariak.**

Emanaldia eskaini zuten, su garretatik zetorren beroari nola edo ahala aurre eginez. Hango lanak amaituta, eskean jarraitu zuten kaxkoan zehar, giro ederrean. Kalezarrekoa, auzune, etxe edo baserrietan urrutitik ikus zitezkeen hainbat eta hainbat su guneetako bat izan zen. Ekainaren 23ko usadioak bizirik jarraitzen duen seinale.

Dena den, soka dantzarekin amaitu ziren festak, ekainaren 24an. Auzotarren animoen artean aritu ziren dantzan, auzoko adinduei eskainitako ekitaldian.





SU ETA DANTZARI ARTEAN AGURTU DITUZTE AURTENGO SAN JOAN JAIAK KALEZARREN.



# Ekitaldirik ez galtzeko moduko festak

## Uztailak 2 osteguna

**06:00** Txokolate-gosaria Artzabalen. Esnadeia txistulariekin. Egun osoz dultzaineroak.
**11:00** Meza Nagusia eta 100 urte ondoren zaharberritutako organoaren inaugurazioa.
**12:00** Umeen danborrada udaletxe aurretik hasita. Jarraian, lore eta salda banaketa Dema plazan.
**15:30** XIII. Mus Txapelketa Askatasuna plazan.
**17:30** XXXVII. Pilota Txapelketako finalak.
**18:00** II. Goitibehera Lehiaketa.
**19:00** Kalejira eroa udaletxeko plazatik abiatuta (dantzariak, irrintzi lehiaketa, antzerkia, bertsolariak, jokoak...).
**19:30** Erraldoi eta buruhandiak, trikitilariekin.
**22:00** Mazedoniako Ensemble Keramicar taldearen dantzak Frontoian.
**23:30** Kontzertua Askatasuna plazan: The Unsimokable Pures, Impekables. Ondoren, dantzaldia Askatasuna plazan: Beste Bat.

## Uztailak 3 ostirala

**06:00** Txokolate-gosaria eta oilasko biltzaileen irteera.
**10:00** Haur eta gaztetxoentzako Pintura Lehiaketa frontoian (materiala bertan banatuko da). Jarraian, sari-banaketa.
**14:30** Oilasko-biltzaileen itzulera eta bazkaria. Ondoren, oilasko-biltzaileen jokoak eta sorpresa Dema plazan.
**16:30** XIVV. Santixabel Igel Jokoa Gure Pakean.
**18:30** Buruhandiak txistulariekin.
**23:00** Kontzertua frontoian: Mendeku Itxua eta Esne Beltza.
**00:30** Klipa-saioa Artzabalen.
**01:30** DJ Bull Askatasuna Plazan.
**02:00** Platano dantza Askatasuna plazan.

## Uztailak 4 larunbata

Egun osoz dultzaineroak.
**09:00** Umeen esnadeia txistulariekin.
**10:00-13:00** Puzgarriak Dema plazan eta zezen mekanikoa frontoi atzean.
**10:00-13:00** Kiroldegi aurrean: Bunge jumping-a. Udarregin: Zorbing eta balance bike-a. Frontoian: tailerrak.
**11:00** Txu-txu trena egun guztian zehar.
**11:00** Toka Txapelketa Askatasuna plazan.
**11:00** Kantujira Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldearekin.
**12:30** Errepresaliatu politikoak Santixabeletara! kalejira. Ondoren, buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
**14:00** Artzabalen bazkaria.
**14:00** Umeen lagunarteko bazkaria frontoian (norberak ekarrita).
**14:30** Kantu-zikiro-jana Askatasuna plazan, Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldeak lagunduta.
**15:00-17:00** Herri kirolak haurrentzat frontoian (gaia: arrantza).
**16:00-18:00** Kiroldegian: Bunge jumping Udarregin: Zorbing eta balance bike-a.
**17:00** “A un toke” lehiaketa Mikel Laboa plazan.
**18:00** Skate Txapelketa Artzabalen (euria bada, frontoian izango da).
**18:00** Sun magoa udaletxe aurrean (euria bada, Udarregin izango da). Ondoren, Txokolatea udaletxe aurrean. Bizikleta baten zozketa egingo da. Ondoren, buruhandi eta erraldoiak txistulariekin.
**18:30** Poteoa Artzabalen Burdinklash taldearekin.
**20:00** Omenaldia.
**22:30** Bertso-saioa frontoian. Bertsolariak: A. Egaña, M. Lujanbio, J. Maia, A. Arzallus, S. Colina eta X. Sukia.
Ondoren, XXXIII. Santixabel Bertsopaper Lehiaketako sari-banaketa.
**00:00** Batukada Artzabaletik abiatuta.
**00:30** Dantzaldia frontoian: Trikizio. Artzabalen: Skasti, Garabi, Sutura.

## Uztailak 5 igandea

Esnadeia dultzaineroekin.
Egun osoz dultzaineroak.
**09:00** VI Ur-bataioa Oiardo Kiroldegian, Beterri-Sub Zubietaren eskutik.
**10:00** Puntapax V. Kayak jaitsiera **Aginagan** (9:45ean Bordatxoko errotondan agertu dadila jaitsieran partehartu nahi duenak).
**10:00-12:30** Santixabel Bola Txapelketa.
**11:30** Meza Nagusia.
**11:30** Zanpantzarrak.
**12:15** Binakako Aizkolari Txapelketa.
**13:00** Herriko dantzarien emanaldia frontoian.



Larunbatean, kiroldegi aurrean eta Udarregin jolas dibertigarri asko izango dira aukeran.

**14:00** Jubilatuen bazkaria, Saizarren.
**16:00** Zaldi-lasterketa kiroldegi aurreko belardian. Haurrentzako poniak eta zalgurdiak.
**17:00-18:00** Santixabel Bola Txapelketa irekia.
**18:00** Euskal Herriko Emakume Harrijasotzaileen Txapelketa.
Euskal Herriko Harri Handien Gizonezkoen Txapelketa. Idi-dema.
**18:00** Bidaia pantailan zehar antzerkia Sutegin.
**18:00** IV. Patata-tortilla lehiaketa Artzabalen.
**18:30-21:30** Gauerdi Txaranga.
**19:00** Buruhandiak, dultzaineroak.
**19:00** Piper-jatea Askatasuna plazan.
**19:00** Fermin Valentzia eta Nafarroako jotak, kantaldia Askatasuna plazan.
**22:30-24:00** Dj Larra frontoian.
**22:00** Musika Artzabalen: herriko talde bat.
**24:00** Maskota erretzea eta traka.
Dj Larrarekin dantza Frontoian.
Artzabalen musika: I can´t Explain.
Ondoren, berbena eta globo-gerra Artzabalen.







# Hizki-zopa



| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 2 izateko nolakotasuna / Jakintza mota | | Biba! / Gehiegi umotu | | Ozeaniako artxipelago / Lorez bete | | Guraso arra / Heldu gara | | Idorokiak |
| | | | | | | | | | | | |
| | | | Tiroz josi / Hangoarenak | | | | | | | | |
| Jabea du / Pertsona ireki | | Harareko / Pertsona barregarria | | | | | | | | | |
| | | | | | | Nafarroako herria / Mota | | | | Potasioa / Futbol jokaldia | |
| * Irudiko eskola / Babestu | | | | | | | | | | | |
| | | | | | | | | | Kanpo, landa / Sasoira heldua | | |
| Errusiako ibaia / Zuiako | | | | Upel handia / Jainko egiptoarra | | | | Sarri, maiz / Erbioa | | | |
| | | | | | Ote emea / Röntgen | | | | | | |
| Maskorren barruko gai zuri gogor | | | | | | Behien arbasoak | | | | | |

**Irudia:** Zein da Usurbilgo Txirrindulari Eskolaren izena? **Soluzioa,** 17. orrialdean.

Kima
MASAJE LEKUA
Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Kale nagusia, 44- behea
LASARTE-ORIA
TEL. 36 61 97

Patri Jatetxea

K/nagusia 14. ✆ 943 362 725

Andoni Errazkin
Xukin
igeltseritza orokorra
Barne eta kanpoko lanak
USURBIL
✆ 663 08 76 71 • 943 24 34 65

*Haginak ondo dabiltzanean, sabela poz!*
USURBILGO HORTZ KLINIKA
FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA
*Kale Nagusia 10, 1.C4* *20170*
*Tlf 943 37 08 78* *USURBIL*

BORDATXO
edaritegia
PINTXO BEREZIAK
Zubiaurrenea, 5
Telf: 943 37 10 42

Josue
Igeltseritza
✆ 606 37 21 05
Atallu pol.28 USURBIL

# Usurbil FT, berriz ere martxan

**Usurbilgo Futbol Taldeak arazoak gainditu ditu. Zuzendaritza talde berri bat osatu da, herrian futbola sustatu eta bultzatzeko asmoarekin.**

Iazko zuzendaritza batzordeko partaide batzuk jarraitzen dute eta hauei kirol munduan urteetan ibili diren lagunak batu dira.

Datorren urterako ideia eta egitasmo asko dituzte baina lehen betebeharra taldeak osatzea da. Aste honetan, infantil, kadete, jubenil eta erregionaletan taldeak osatzeko lehen entrenamenduak egin dituzte. Nesken futbol taldearekin ere, aurrera jarraitzeko asmoa dutela azaldu du Usurbil FT taldeko zuzendaritza berriak.



ZUZENDARITZA TALDE BERRIA OSATU DA FUTBOL TALDEAREN INGURUAN.

## Santixabel Pilota Txapelketako finalak

Ostegun honetan jakingo dugu nork irabaziko duen Santixabel Pilota Txapelketa. Kanporaketa ugari jokatu eta gero, hauek dira finaletara iritsi diren bikoteak. Finalak arratsaldeko 17:30etik aurrera jokatuko dira.

**FINALAK**
**UZTAILAK 2 OSTEGUNA, 17:30**
**JUBENILAK**
Iriondo – Murgiondo (AZPEITIA)
Loban – Etxamendi (BURLATA)

**NAGUSIAK**
A.Aranburu – Elola (LASARTE)
Lizaso – Loiola (VILLABONA)

# Gizon proban, Orio nagusi

Gutxigatik izan bazen ere, Orio nagusitu zen igandeko gizon proban. Usurbildarren ondoren hasi ziren lanean oriotarrak. Beraz, Orioko taldeak harriari heldu aurretik, bazuen Usurbilgo taldeak egindako markaren berri. Irabazleek abantaila txiki bat izan zutela, alegia.

Jende asko bildu zen Dema plaza inguruan, Orio zein Usurbilgo gazteen saioa ikustera.

Probaren amaieran, sari banaketa egin zen eta ondoren argazki bat atera zuten elkarrekin.









## Agenda !!

**Uztailak 2 osteguna**
- Santixabel Pilota Txapelketaren finalak, 17:30ean frontoian. Jubenilak zein nagusiak.

**Uztailak 6 astelehena**
- Udajolasen hasiera. Frontoian, 9:30etik 13:30era.

**Uztailak 6/10**
- Piraguismo hastapen ikastaroa (651 701 519).

### Eguneko goardiako farmaziak

**Uztailak 2, osteguna**
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

**Uztailak 3, ostirala**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

**Uztailak 4, larunbata**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte
Oa, Kontseju Zarra 11, Usurbil *

**Uztailak 5, igandea**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Uztailak 6, astelehena**
De Miguel, Kale Nagusia 32, Lasarte

**Uztailak 7, asteartea**
Rodriguez, Nagusia 42 atz., Lasarte

**Uztailak 8, asteazkena**
Gil, Nagusia 24, Lasarte

**Uztailak 9, osteguna**
Acha-Orbea, Hipodromoa 6, Lasarte

**Uztailak 10, ostirala**
Urbistondo, San Frantzisko 1, Lasarte

**Uztailak 11, larunbata**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte
Iturralde, Borda Berri 1, Usurbil*

**Uztailak 12, igandea**
Orue, Jaizkibel plaza 2, Lasarte

***GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ***
***Castilla Farmazia** (22:00-09:00), Urbieta kalea, 7 Hernani 943 552 941*
**Usurbilen, soilik eguerdira arte*

| | | | | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|  | | | ✪ | B | ✪ | G | ✪ | T | ✪ | T | ✪ |
| | | | F | I | L | O | L | O | G | I | A |
| | | | ✪ | T | I | R | O | K | A | T | U |
| ✪ | J | ✪ | H | A | R | A | R | E | T | A | R |
| N | A | B | A | S | I | ✪ | E | L | O | ✪ | K |
| ✪ | B | U | R | U | N | T | Z | A | Z | P | I |
| D | E | F | E | N | D | I | T | U | ✪ | A | T |
| ✪ | D | O | N | ✪ | U | P | A | ✪ | U | S | U |
| Z | U | I | A | R | ✪ | O | T | E | M | E | A |
| ✪ | N | A | K | A | R | ✪ | U | R | O | A | K |

Soluzioa: Buruntzazpi

# Bentazaharreko Mutiko Alaiak kantujiran ibiliko dira larunbatean

Talde hau Urretxu-Zumarragako eta Urrestillako kideez osatuta dago. Boskote moduan 2006ko udan hasi ziren lanean eta, harrez geroztik, jai askotan aritu dira kantuan. Euskarazko abesti ezagunak kantatu ohi dituzte eta kalejiran ibili ohi dira, soinu-ekipo mugikor batekin. Erabiltzen dituzten instrumentuak hauek dira: eskusoinua, biolina, gitarra, dultzaina, txirula, aho-soinua eta perkusioa.

Larunbat honetan, goizeko 11:00etan, kantujiran ibiliko dira. Euskal kantagintzako abesti ezagunak eskainiko dituzte, tartean, Benito Lertxundi, Imanol, Xabier Lete, Oskorri, Sorotan Bele eta Itoizen kantuak abestuko dituzte.

Herritarren partehartzea bultzatzeko, kantu liburuxkak banatu ohi dituzte. Eguerdiko kalejira eta gero, Askatasuna plazan arituko dira kantuan.



KANTU GIROA NAGUSITUKO DA LARUNBATEAN. IRUDIAN, BENTAZAHARREKO MUTIKO ALAIAK.

## Organo zaharberrituaren inaugurazioa

Santixabel egunean, Salbatore elizako organo zaharberrituaren inaugurazioa egingo da, goizeko 11:00etan. Meza nagusiarekin batera, Joan Luis Atxega organojolea eta Irriu abesbatza arituko dira. Anastasio Huizi, E. Mola eta J. S. Bach-en konposaketak eskainiko dituzte.

Udazkenean jarraipena izango dute organo berritua inauguratzeko ekitaldiek.

## Uztailaren 6an, odol ematea anbulatorioan

Datorren astelehenean, uztailaren 6an, odola emateko aukera berri bat izango da. Ohitura den bezala, arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara, herriko anbulatorioan. 18 urte beteak eta 66 betetzeko dutenei zuzendutako deialdia da. Osasun arazorik ez izatea da bete beharreko beste baldintza.

Emanaldian medikua izango da, beti bezala, izan daitezken kezkak argitzeko.

## Etxebizitza

- Orion babes ofizialeko etxe bat daukat eta Usurbilen babes ofizialeko etxeren bat daukan norbaitekin aldatuko nuke. Interesatuak deitu 663600020.
- 230 metro karratuko etxea salgai, 2 solairuko bordarekin. 2800 metro karratuko lursailean.Kalezarko eremu urbanoan. 665720913.
-Atxegalden 33 metro karratu dituen lokal bat alokatzen da. Sarrera egokia. 943373414
-Pisu bat daukat alokairuan eta pisukide baten bila nabil. Hilean 250 euro. 615 006 390.
- Bordaberri 3 kalean etxe bat daukagu salgai. 676910638.
- Pisua salgai Usurbilen (Txaramunto; 2 urte). 97 m2 - erabilgarri. Egongela-sukaldea (35 m2), 3 logela, 2 bainugela, balkoia, arropak esekitzeko toki itxia, garajea, trastelekua eta igogailua. Eguzkitsua. 375.000 euro. 616443507.
- Etxebizitza bat alokairuan hartu nahi nuke. Mesedez deitu: 697 807 403.
- Santuenea auzoan hirugarren pisua salgai, guztiz amueblatua, 50m ditu. Gela bakarrekoa, sukalde, sala eta komuna oso argia da. 161.000 euro. 675709914.
- Baserri bat alokatu nahi nuke, Zubietan, Aginagan edo Usurbilen. 630 274 906.
- Pisu bat salgai Kaxkoan, 3 logela, igogailua, balkoi luzeak eta ganbara dituena. Dena berritua eta amueblatua. 45.000.000 pta. 657 71 13 35.
- Usurbilen etxebizitza salgai. 3 logela, sala, komuna, sukaldea, bi balkoi, igogailua, ganbara. Kaxkoan. 607 924 407.
- Usurbilen etxebizitza salgai. Sukaldea, jangela, egongela, bi logela eta komuna. Dena amueblatua eta egoera onean. Agentziarik ez. 600645629
- Apartamentu-duplex rustikoa salgai. Zubietan Elizaren ondoan. 197.000 euro. 678084020.
- Usurbilen bi logelako etxe bat daukagu salgai. 666 539284.
- Etxe berria salgai kaxkoan. 3 logela, bainua, komuna,... eta trasteroarekin. 685731792.
- Logela bat alokatu nahi da etxe konpartitu batean. 671800275.

## Salerosketak / garajeak

- Motorra salgai. Peugeot Speedfight 3, 50 c.c. 2009ko maiatzekoa. Estrenatu gabe eta matrikulatu gabe. 1.800 euro. 655724125.
- Garaje bat alokatzen da Bizkarre kalean. Neurriak 2,5m x 5m eta 2,1 metrotako altuera. Interesatuak deitu 943361265.
- Peugeot 307a salgai. XS 2.0 HDI bersioa. 90 cv, 5 ate. 2002ko maiatzean matrikulatua, 149000 km ditu. Oso egoera onean dago. Korrea eta alternadore berriak ditu. Gris metalizatua, Parrot markako telefonorako esku- librearekin. 6000 euro negoziagarriak. 685725639.
- Usurbilgo industrialde batean 220 metro karratuko pabiloi bat alokatzen da. 616926027.
-"Yamaha especial 250" motorra salgai. Egoera onean, 700 euro. 615 006 390.
- Mitsubishi Montero DI-D 3.2 GLS motza salgai. 148000Km, 6 urte. Tel.: 678636965
-50cc-ko motorra daukat salgai. Aukera paregabea. 2 urte eta oso kilometro gutxi. Beti garajean, ondo zaindua. 622369646.
- Sotano komertzial bat alokatzen da 600 eurotan. 650938489
- Txoko polit bat alokatzen da. 650943847
- Atxegalden Aristitxo kalean 90 metro karratu (bi solairutan) dituen lokal bat alokatzen da. 658716970.
- Etxebeste kalean 44 m2-ko lokala alokatzen da. Interesatuak deitu: 943 36 12 19.

## Lanpostuak

### Lan-eskaerak

- Astebukaeratan lan egiteko, parrilarako pertsona bat eta beste bat zerbitzari moduan aritzeko behar ditugu. 943 36 67 10.
- Usurbilgo Sendategiak erizaina behar du OLT-EDU (ATS-DUE). Lan baldintzak jakiteko 943361124 telefonora deitu.

### Lan-eskaintzak

- Neska arduratsua etxeko lanak, haurrak zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da. 699207750
- Zerbitzari, sukaldari laguntzaile edo garbitasun lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 664048228
- Emakume bat haurrak zaindu edota orduka etxeko lanak egiteko prest. 943 575 788.
- Mendian edo abeltzaintzan lan egiteko prest nago. 666 38 26 97.
-Emakume bat orduka edo interna moduan lanean aritzeko eskaintzen da. 608835033
- Matematika eta estatistika klaseak ematen ditut, edozein mailan, esperientzia handia. 646717676.
-Autoen mekanikari gisa lan egingo nuke. 943368574.
-Emakumea adineko pertsonak zaintzeko prest, interna moduan. 608 098 941.
- Etxeko lanak egiteko emakume bat eskaintzen da. 620185927.
-Arratsaldetan umeak zaintzeko neska euskaldun bat eskaintzen da. 685716774.
-Etxeko lanak egiteko neska bat eskaintzen da. 630768325.
- Neska bat eskaintzen da haurrak edo pertsona helduak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. 620 364 176.
- Emakume gazte bat lan bila dabil, orduka edota plantxan aritzeko: 630 438 571.
-Pintore edo burdinlari gisa lan egiteko prest nago. 654 217 752.
-Goizez haurrak zaindu edo etxeko lanak egiteko prest nago. 616 376 591.
- Usurbilgo neska bat eskaintzen da etxeko lanak egiteko, portalak garbitzeko... Interesatuak deitu 21:00-23:00 edo kontestagailuan mezua utzi, 943 36 44 69. Esperientziaduna.
- Neska gazte esperientziaduna eta usurbildarra, arratsaldetan haurrak zaintzeko prest. 661 626 500 // 943 371 348.
-Fisika eta matematikako klase partikularrak emateko prest, neska gazte esperientziaduna. Lehen Hezkuntzatik Batxilergo mailara arte. 685 772 602 // 943 371 277.
- Etxeko lanak egiteko edo haur zein pertsona helduak zaintzeko eskaintzen da pertsona bat. 671884360.
- Neska bat eskaintzen da umeak zaintzeko zein etxekolanak egiteko. 679742413.

## Bestelakoak / Galdutakoak

- Raclet markako denda-karroa salgai (remolke kanpina). Oso egoera onean eta garajean egondakoa. 2 ohe 1,90x1.50, baka, ordezko gurpila, Jockey gurpila eta arkoia ohe azpian. Ekonomikoa. 628652334.
- Maiatzak 8an Kodak markako kamara digital bat galdu genuen Kaxkoan. 678177129
- Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi baduzu, deitu 665745071 (Iñaki)
- Artzabal inguruan maleta txiki bat, kotzeko bi DVDrekin aurkitu dugu. Galdu duenak deitu 656774127 telefonora.
-Frantseseko klaseak ematen ditut Usurbilen. Astelehen eta asteartetan. Klaseak maiatzean hasita daude baina oraindik plazak daude. Informazio gehiago Laurok liburudendan.
- Belardiak behar dira belarra ontzeko: Usurbil, Lasarte edo Donostia inguruan. Danitaz galdetu. 607 457 004 / 943 36 60 40.
- Ohea egiten den 3 plazako sofa bat daukat salgai 125 euro. Kolore argia, txuri-beig kolorekoa. 655731915
-Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Interesatua bazaude maketa bat entzungai daukat. 690784113
- Arrue markako kotxe kapota bat salgai daukagu 250 eurotan. 6-8 hilabete arteko umeentzat egokia. 616586851.
- Etxebizitzen erreforma orokorrak egiteko zerbitzua. Jon 672 173466.
- Pottokak salgai, kalifikatuak eta subentzioa jasotzen ari direnak beraien moxal jaioberriekin eta urtebeteko behorra. 626 220925
- 2. eskuko trikitixa erosiko nuke. 6567652 13.
- Argazki zaharrak txukuntzen dira. Baita bideoak editatu ere. 617 242 660/ zapore@euskalnet.net




Aurten ere, bigarrengoz, sorgin bat falta izan zaigu San Juan bezperan. Baina guk sutara bota ditugu prakagorri madarikatu guztiak eta hurrengo urtebetetzerako denok batera egingo dugu dantza suaren inguruan. Zorionak Marixiña!



**Zorionak Janire!** Ekainaren 28an 6 urte bete dituzu. Zorionak Julen, Ane eta famili guztiaren partez. Oso ondo pasa eta muxu asko!



**Zorionak Imanol!** 4 urte bete dituzulako jaso muxu handi bat Aginagako eskolako lagunen partez. Ondo pasa oporrak!



**Zorionak Olatz!** Etxeko printzesak 5 urte egiten ditu uztailaren 4an. Zorionak eta besarkada handi bat etxekoen partez eta hasi txokolatezko tarta egiten!!

## Hildakoak



**Maria Alkorta Zabala**
Ekainaren 21ean hil zen 93 urterekin, Ziraukin Agerre baserrian jaioa

## Jaiotzak

**Aner Redruello Gimeno,** maiatzak 27
**Laia Larrañaga Goenaga,** ekainak 14
**Luken Larramiñana Galvez,** ekainak 15
**Asier Collado Machin,** ekainak 21



**Zorionak Naddi!** Ekainaren 30ean bi urte egingo ditu etxeko sorginak. Muxu handi bat eta ondo pasa!

# ERRAUSKETAREN ERAGINA INGURUAN




Linfoma No-hodgkin (10km-arte)
Ehun bigunetan minbizia edo sarkomak (2km-arte)
Fetuaren mutazio eta malformazioak (5km-arte)
Bizkarrezur bifidoa eta bihotz arazoak (5km-arte)
Kantzer ezberdinak (16Km-arte)
Asma arazoak (10km-arte)
Leuzemia eta haurren minbizia (7,5km-arte)

## ARRISKU GORENEKO INGURUA: 5 Km-arte

| HERRIALDEA | BIZTANLEAK |
|---|---|
| ANDOAIN | 13.993 |
| URNIETA | 5.847 |
| USURBIL | 5.661 |
| LASARTE-ORIA | 17.647 |
| HERNANI | 18.827 |
| IGARA-IBAETA, ANTIGUO, BERIO, IGELDO... | 53.513 |

## ARRISKU ALTUKO INGURUA: 5 eta 8km bitartekoa

| HERRIALDEA | BIZTANLEAK |
|---|---|
| ADUNA | 352 |
| ZIZURKIL | 2.828 |
| ORIO | 4.640 |
| ASTIGARRAGA | 4.151 |
| DONOSTI ERDIALDEA, AMARA, GROS, LOIOLA, MARTUTENE | 47.352 |

| GUZTIRA | 174.811 |
|---|---|

Osasun-tekniko batzordea

# Edertu zaitez!
















